



DIRU SARRERAK

Ondoren xehetasun gehiagoz aztertuko dugun bezala, gure diru-sarrerak hainbat iturritatik etorriko dira: taldean erreserbatutako bisita gidatuak, bestelako bisita gidatuak, bizikleten alokairua, bizikleten garraioa eta maila apalago batean bada ere, ibilbideari lotutako *souvenir* moduko oparien salmenta.

Gure diru sarrera nagusia eta egonkorrena **bisita gidatuetatik** etortzea aurreikusten dugu; bereziki ikasle-taldeen bisitengatik. Halako kasuetan, jende kopuru handia izan ohi da, eta Urola bailarako beren herrian hasiko ez balira behintzat, guztiek behar izango lukete bizikleta banaren alokairua. Ikasgela bakoitzean orohar 18-25 ikasle bitartean izan ohi direla kontuan hartuz, ikasle bakoitzagatik 7€ kobratuko genizkioke ikastetxe bakoitzari bizikletak orduko, aseguruua, asistentzia eta gida barne (aukeratutako geldialdiko kostuengatik 2€ gehitu beharko genizkioke); eta 4€ orduko bizikletarik beharko ez luketeen kasuetan.

Banaka, binaka edota pertsona-multzo txikiagoetan erreserbatutako bisiten kasuan aldiz, gutxienez 4 pertsonak osatutako taldeak izango da baldintza, eta bakoitzari 10€ orduko kobratuko genizkioke bizikletak, aseguruua, asistentzia eta gida barne (aukeratutako geldialdiko kostuengatik 3€ gehitu beharko genizkioke); eta 8€ bizikletarik beharko ez luketeen kasuetan.

Bisita gidatu gabeko bizikleten alokairuari dagokionean, bi aukera aurreikusten ditugu: Egun guztiko alokairuak alde batetik (6€ orduko bizikleta bakoitzeko), goizeko 4 orduko alokairuak (7€ orduko bizikleta bakoitzeko 8:30 eta 12:30 bitartean) eta arratsaldeko 4 orduko alokairuak (7€ bizikleta bakoitzeko 14:30 eta 18:30 bitartean). Goizeko eta arratsaldeko txanden ordutegia hainbat arrazoiengatik zehaztu dugu: Egun osoko erreserbak sustatzea, eta goizeko bizikleten itzulerekin arratsaldeko txandak bermatu ahal izatea. Arratsaldeko txanden amaierak berriz, lan-jardunaldiaren amaiera ilundu aurretik amaitzea ahalbidetuko digu denboraldiaren zati nagusienean.

Bizikleten garraioa izango da apalagoa izan arren beste diru-sarreretako bat. Bisita gidatuak erreserbatu dituztenen tarifaren barnean sartuko litzatekeen arren, bizikleta alokatzen dutenei 2€-rengatik eskainiko genieke zerbitzu hau eta



egun bateko aurrerapenarekin jakinarazi beharko ligukete. Hauek gain, baliteke batzuek beren bizikleten garraio-zerbitzua erreserbatzea ibilbidearen punturen batera joanaldiarekin nahikoa dutelako. Halakoetan, 3€-ko kostua izango luke zerbitzu honek, eta gure *greenway* puntu beste batetara garraiatzea izango litzateke.

Azkenik, **Urola Greenway esperientziari lotutako produktu sorta** eskainiko genuke. Ohikoa izan ohi da bisitariek oroigarri moduan edota gertukoenei oparitzeko produktuak nahi izatea. Hortaz, Urola bailaran kokatutako bizikletei lotutako esperientzia bat garelaz azaltu gabe, hainbat produktu eskainiko ditugu prezio onean: kamisetak, jertseak, mailotak, kuloteak, botilatxoak, txapelak, tazak, aterkiak, e.a.

Ikastetxeek fideltasun-abantailak izango dituzte. Hau da, bidaia kantitate jakin bat erosi ostean, ez diegu hasieran kobratzen zenien kantitate berdina eskatuko. Zenbat

eta aldi gehiagotan erosi gure zerbitzuak, orduan eta merkeago irtengo zaie. Gainera, ikastetxeek normalean urtero ekintza batzuk izaten dituzte antolatuta, beraz guk horietako bat izatea lortuz gero, diru sarrerak areagotuko litzaizkiguke eta beraiek fideltasun abanaita horiek aprobetxatu ahal izango dituzte. Norbanakoei ere deskontuak eskeiniko dizkiegu, hautatzen duten bidearen arabera. Ikasleek bidea monitoreekin egingo duten bezala, norbanakoek aukeratzeko izango dute norbaiten gidaritzapean egin ala ez. Horrela, monitorearekin egin nahi izanez gero, ikasleko orduko 2€ garestiago salduko genieke, eta zenbat eta gehiagotan erosi, orduan eta merkeago aterako litzaioke. Familia ugarietara ere, deskontuak eskeiniko genizkieke hasieratik.

Esan beharra dago bidaia garestiagoa dela monitoreekin, hau da, bidea monitorearekin egiteagatik 2 euro extra ordaindu beharko lukete ikasleek. Familia ugariaren kasuan, deskontu bat egingo litzaieke. Adibidez; 5 kideko familia batek %10eko deskontua izango luke. Bestelako bezeroen kasuan, eskualdeko izateagatik %5eko deskontua eskainiko litzaieke. Familia ugari eta eskualdekoen deskontuak ez dira gehigarriak izango, bietan handiena hartuko da kontuan.